

2014-12-4

PRENTSA OHARRA

HEZIBERRI DEKRETUAK KALTEGARRIAK DIRA ESKOLA PUBLIKOARENTZAT ETA EZ DIGUTE UZTEN GURE HEZKUNTZA SISTEMA ERAIKITZEN

Heziberri dekretuekin ez gaudela ados eta guretzat ezinbestekoak diren aldaketak egiteko eskatu diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari *Euskal Eskola Publikoa Gaur, Bihar* plataforma osatzen dugun EHIGE, BIHE eta SAREAN elkarteok.

Abenduaren 9an helaraziko diogu Hezkuntza sailari gure desadostasunak jasotzen dituen behin-betiko dokumentu sakona:

-Ez gaude ados LOMCE ezartzearekin:

- Dekretuek LOMCEren lehen eta bigarren hezkuntzako egitura eta edukiak kalkatzen dituzte.
- Bi ziklotan banatzen dute lehen hezkuntza eta hankaz gora jarri gaur egungo antolaketa.
- Aniztasunari aurre egiteko baliabideak desagertzen dira, curriculum aniztasunerako programa kasu.

-Ez gaude ados euskal hezkuntza sistemarentzat defendatzen ditugun oinarriak ahazten dituen dekretu curricularren garapenarekin

- Ez du sareen arteko ardura partekatua aldeko apusturik egiten, ikasle bakoitzari ahal bezain eskolaratze egokiena bermatzeko.
- Ez du jasotzen bikaintasunera ekitatetik abiatzeko oinarrizko printzipioa.
- Egun indarrean dauden dekretuak jasotzen dituen Euskal Herrirako Curricula-ren aipamenak desagertu dira.

-Ez ditu jasotzen Euskal Eskola Publikoarentzat aurrera egiteko garrantzitsuak diren apustu berritzaileak:

- Hizkuntzen tratamendu integratua, gaur egungo ereduaren sistema gaindituko duena.
- Ikastetxe publikoen autonomia eraginkorra gauzatzeko araudia.

-Ez dugu uste horren garapen sakona behar denik curriculum doitzeko.

- Desberdintasun handiak daude atalen artean: batzutan gehiegi sakontzen da, beste batzuetan hutsune garrantzitsuak daude eta beste batzuk ez lirateke agertu behar.
- Egun indarrean dagoen dekretua hobeto doitzen zaie gizartearen eta sistemaren beharrei.

-Ez ditu jasotzen Heziberriren aurreneko fasean egin genituen ekarpenak:

- Eskola publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz egituratzailea izan behar da.
- Sistemaren diagnosis.
- LOMCEren eraginaren analisia.

Guzti honegatik, **egungo dekretuak bere horretan ez ezartzea eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari**. Gure herriak behar duen hezkuntza-sistemaz eztabaidatzen jarraitu nahi dugu, horixe da gure ustez aurrera egin eta gure hezkuntza sistema propioa hobetu eta eraikitzen jarraitzeko bidea.

NOTA DE PRENSA

LOS DECRETOS HEZIBERRI SON NEGATIVOS PARA LA ESCUELA PÚBLICA VASCA Y NO PERMITEN CONSTRUIR UN SISTEMA EDUCATIVO PROPIO

Las asociaciones EHIGE, BIHE y SAREAN que formamos la plataforma *Euskal Eskola Publikoa Gaur, Bihar* hemos comunicado al Departamento de Educación del Gobierno vasco que no estamos de acuerdo con los borradores de los decretos Heziberri y le hemos solicitado cambios irrenunciables.

Tal y como hemos anunciado al Departamento de Educación, el próximo 9 de diciembre aportaremos un documento exhaustivo y definitivo con las razones por las que no estamos de acuerdo con dichos decretos:

-No estamos de acuerdo con aplicar la LOMCE:

- Los decretos calcan la LOMCE en la estructura y contenidos de primaria y secundaria.
- Dividen en dos ciclos y pone patas arriba la estructura actual de primaria.
- Desaparecen medidas de respuesta a la diversidad como la diversificación curricular.

-No estamos de acuerdo con un desarrollo de decreto curricular que se olvida los principios que defendemos para el sistema educativo vasco.

- No apuesta por un sistema de corresponsabilidad entre redes para garantizar la mejor escolarización posible a cada alumna y alumno.
- No incluye el principio básico de excelencia desde la equidad.
- Han desaparecido del decreto las referencias a Euskal Herrirako Curriculum del decreto actualmente en vigor.

-No recoge propuestas innovadoras y de avance importantes para la Escuela Pública Vasca:

- Un tratamiento integrado de las lenguas que supere el actual sistema de modelos lingüísticos.
- Un marco normativo de ejercicio efectivo de la autonomía de los centros públicos.

-No compartimos la necesidad un desarrollo tan exhaustivo para ajustar el currículo.

- El articulado es desigual, algunas cuestiones están exhaustivamente reguladas, otras tienen lagunas importantes y otras no deberían figurar.
- El decreto actualmente en vigor se ajusta mejor a la demanda social y necesidades de nuestro sistema.

-No se recogen las aportaciones que ya hicimos en la primera fase de Heziberri:

- Un reconocimiento de la escuela pública como eje vertebrador del sistema educativo.
- Un diagnóstico del sistema.
- Un estudio de impacto de la LOMCE.

Por todo ello, **solicitamos al Departamento de Educación del Gobierno vasco que no aplique los decretos en su forma actual.** Queremos seguir debatiendo sobre el sistema educativo que necesita nuestro país; creemos que ese es el camino para mejorar y seguir construyendo nuestro propio sistema educativo.